



**TXOSTENA, HABE-REN ZUZENDARITZA NAGUSIAK EGIN DUEN KONTSULTAREN ONDORIOZ EGINDAKOA. GAIA: PERTSONEN ARTEKO URRUNTZE-NEURRIAK EUSKALTEGIETAN.**

Erreferentzia: 60/2020 LGAKZ-LI

Tramitagune kodea: CCSS\_SOI\_105882/20\_44

**I.- Aurrekariak**

COVID-19aren krisiaren ondorioz prebentzio-neurri garrantzitsuak ezarri dira, eta HABEren Zuzendaritza Nagusiak honako gai honi erantzuteko eskatu dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari: Euskaltegietan egin beharreko hezkuntza-jarduera presentzialetan maskarak erabiltzen badira, nahitaez mantendu behar dira horretarako xedatutako pertsonen arteko segurtasun-tarteak?

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeari buruzko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.2 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 7.1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera egiten da txosten hau, horietan aurreikusten baita, aholkularitza juridikoko eginkizunaren barruan, txostenak egin behar direla Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari egindako kontsulta juridikoari erantzuteko, nahitaezkoa ez den legezko iritzia islatuz.

**II.- Aldez aurreko gaia**

Txosten honek egin den kontsultari modu ezin hobean erantzun nahi dion arren, sinatzen duenak egokitzen jotzen du kontsulta horren jatorriari buruzko lehen gogoeta egitea.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- 1.- Saitetako edo erakunde instituzionaletako aholkularitza juridikoei dagokie zuzenbide-arloko aholkularitza ematea, bakoitzak bere jardun-eremuan, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari esleitutako eginkizunak eragotzi gabe.
- 2.- Hala ere, legezketasunari buruzko txostena nahitaezkoa ez denean ere, gobernuak, Administrazio Instituzionaleko sailtako eta organismoetako titularrek, sailburuek eta zuzendariak, eta organismo publikoen gobernu-organoen titularrek kontsultak egin ahal izango dizkiote Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari, beren eskumeneko gaiei buruzko edozein zalantza juridiko argitzeko.
- 3.- Horrela, bada, kontsulta edo eskaera horiei kontsulta edo eskaera egiten duen saileko edo organismoko aholkularitza juridikoaren txostena erantsi beharko zaie. Txostenean, hau adieraziko da: a) Gaiaren egitateak edo oinarri faktikoak deskribatuko dira behar bezain zehatz, baita hasiera batean aplikagarritzat jotzen den eremu juridikoa eta garrantzitsutzat jotzen diren aurrekari administratibo eta jurisprudenzialak ere. b) Kontsulta zehaztuko da, deskribatutako egitateak eta aurrekariak oinarritzat hartuta, eta adieraziko da, arrazoiak emanda, zein diren aholkularitza behar diren puntuak.

Nahi izanez gero, 60/2020 LGAKZ-LI txosten honetako aurrekariak haur egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T28DH-320A en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>



*c) Justifikatu beharko da komeni dela Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren aholkua eskatzea.*

Kontsultaren baldintzak eta arrazoiak kontuan hartuta, argi dago kontsulta nabarmen urruntzen dela apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuan jasotako kasu eta baldintzetatik. Arau horrek, transkribatutako artikuluekin bat etorritik, honako hau xedatzen du 7.2 artikuluan: *Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatuek eta sailtako edo erakunde instituzionaltako aholkularitza juridikoek egindako txostenak eta legezko irizpenak izaera juridikokoak baino ez dira, eta zuzenbidean oinarritzen dira soilik, eta haietatik kanpo gelditzen dira zuzenbidean oinarritu gabeko egokierabalarazioak, nahiz eta, beharrezko iritziz gero, aholkuak eman edo ohartarazpenak egin ahal izango diren kontsultaren edozein alderdiren gainean.*

Eta hori horrela da, HABEren Zuzendaritza Nagusiak egindako kontsultak ez duelako planteatzen inolako gai juridikorik, zalantzak argitzeko legezko iritzia ematea dakarrenik. Nolanahi ere, zalantza horiek, baldin badaude, organo igorlearen aholkularitza juridikoak txostena egin ondoren argitzen dira.

Orain arte azaldutakoa alde batera utzi gabe, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari kontsulta egin ondoren, eta COVIDak gaur egun duen krisi-egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duenak bere iritzia ematen du, nahiz eta iritzi horren bidez berretsi egin behar duen, jarraian adierazten den moduan, txosten horretan jasotzen den ondorioa, kontsultarekin batera doan aholkularitza juridikoaren txostenaren edukiarekin bat dator eta.

### **III.- Kontsultari ematen zaion erantzuna.**

Hain zuzen ere, goian aurreratu dugun bezala, sinatzen duena bat dator HABEren Aholkularitza Juridikoaren arduradunak 2020ko uztailaren 20an egindako txostenean jasotzen duen ondorioarekin.

Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Agindua hartu da oinarri moduan ondorio hori emateko (Agindua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero).

Xedapen horren eranskinaren edukiarekin eta, zehatzago, pertsonen arteko segurtasun-betebehar orokorrekin, eta euskaltegiei aplikatu beharreko prebentzio-neurri espezifikoekin eta edukiera-mugekin bat etorritik (zeinak ez baitziren aldatu Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 15eko Aginduak ezarritakoarekin, zeinak 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina aldatu baitzuen), behin eta berriz aipatu dugun txosten juridikoak emandako ondorioa aplikatu behar zen, hau da: euskaltegietan egin beharreko hezkuntza-jarduera presentzialetan, maskarak erabilia ere, nahitaez gorde behar da pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia.

Ondorio hori orduan zuzena izan zen indarreko xedapenen babesean, eta orain ere zuzena da, Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan xedatutakoaren arabera. Agindu horren bidez, berriz ere aldatu zen 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina.

Agindu horrek indargabetu egiten du 2020ko uztailaren 15eko Agindua, eta, besteak beste, honela geratzen da idatzita 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren 3.6 paragrafoa:

*3.6.1.- COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua aplikazio-eremuan sartzen ez diren euskaltegi, akademia, autoeskola,*

*eskola eta arautu gabeko prestakuntza-zentroetan egiten den jarduera, halakoak dagokien erregistroan inskribatuta baitaude, presentziala izan ahalko da eta gehienez ere 25 pertsonaren mugara bitarte. Instalazioetan pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira. Maskara nahitaez erabili behar da, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea uzten bada ere.*

Xedapenaren baldintzak zehatzak dira: maskara nahitaezkoa da, baita pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea ere.

Beraz, berretsi egin behar da HABEren Aholkularitza Juridikoko arduradunak sinatu zuen 2020ko uztailaren 20ko txosten juridikoaren ondorioa. Txosten horrek, planteatutako gaiari erantzunez, adierazi zuen maskara erabiltzeak ez zuela baztertzen pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izatea.

Hauxe da egin dudana txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein iritziren mende jartzen dut.